


Heriotzek aberastu zuten gizona

Uhaina Atxotegi Alegria
Elhuyar

Samuel Colt 1814. urtean jaio zen Cunnecticuten (AEB). Batzuen onerako eta besteen kalterako, bere ametsik handiena errealitate bihurtu zuen: berak patentatu zuen, hain zuzen, 1836ko otsailean Colt errebolberra. Txikitatik mota guztietako mekanismoak gustatzen zitzaizkion, baina kuttunen armen mekanismoak zituen.

ZAZPI URTE BESTERIK EZ ZITUELA, bere gurasoek pistola bat desmuntatzen eta muntatzen ari zela atzeman zuten. Handik hiru urtera, Colt gazteak herri osoko biztanleei bere torpedo berritzailearen berri eman zien. Herritik hurbil zegoen lakuko baltsa ezandarazi egingo zuela esan zien. Esan eta egin! Baltsa Hartford herriko zeru gainean ikusi ahal izan zuten bertako biztanleek. Eztanda izugarri indartsua izan zen: ikusleak urez eta lokatzez beteta utzi zituen. Erabat haserre eta amorraturik, herri guztia asmatzaile gaztea harraipatu nahian ibili zen, baina Elisha K. Root ingeniariak babestu zuen Samuel.



Samuel Colt oso gazterik hil zen.

ARTXIBOKOA
ARTXIBOKOA

Zerk bultzatu zuen Samuel Colt?

1830. urtean, Samuelen aitak semea *Corvo* izeneko barkura igorri zuen itsasmutil. Arriskua gustuko zuen eta bidaia hark semea zertxobait lasaituko zuela pentsatu zuen aitak. Baina aitararen eta beste askoren kalterako, semeak bere irudimenari eta abenturarako grinari eutsi zien.

Itsasoan zegoela, bere ordu libreetan, buruan zeraman ideia ahal zuen eran gauzatzen saiatu zen: egurrezko zilindro xume bat, ardatz bat eta mailu bat zizelkatu zituen. Kondairak dioenez, hiru pieza horiek barkuko osagaietan inspiratuta sortu zituen: lema, aingura eta aingura eusteko erabiltzen zen trinketa imitatuz, alegia. Etxera iritsi orduko tresna hura material egokiagoak erabiliz egin zuen.

Samuel Colt ez zen errebolberraren lehen asmatzailea izan. Ordurako baizeuden danbor birakorreko eta kanoi aniztuneko armak. Baina Samuel Coltek errebolberra perfektionatu zuen, tresna horren danborrak automatikoki bira egin zezan lortu baitzuen. Azken batean, hiltzea helburu zuen tresna hura erabilgarriagoa bihurtu zuen.

Colt errebolberren ospea

1836-1842 urteetan, Coltek bere lehen armak industrialki ekoitzi zituen. Tresna berriaren patentea New Jersey-ko Patent Arms Manufacturing Company enpresari utzi zion denbora baterako. Hainbat arrazoiengatik, (Gobernuarekin kontratu on bat lortu ez zuelako, armen garapen eskasagatik...) Colti abentura komertzial hura gaizki joan zitzaion eta porrot egin zuen. Hala eta

gutziz, lanean jarraitu eta beste asma- kizun batzuk gauzatzeko aukera izan zuen, besteak beste, portuak babeste- ko itsaspeko minak, elektrizitatea ga- rraiatzeko kablea eta seinale telegra- fikoak.

Jakina den lez, armak betidanik diru- -iturri izan dira eta hala izaten jarrai- tzen dute. Horrexegatik, hain zuzen ere, Samuelek errebolberrera perfekzio- natzen jarraitu zuen. 1846. urtean Sa- muel Walker kapitain amerikarraren bisita izan zuen. Bi gizon haien arteko harremanaren ondorioz, Colt-Walker errebolber ospetsua sortu zuen. Arma hari esker, eta gobernuarekin erre- bolber-modelo hura kopuru handian ekoizteko izenpetu zuen kontratuari esker, Coltek txikitako ametsa bete zuen, hots, bere arma-fabrika propioa irekitzea.

Arma-modelo ugari

Walker-aren ondoren sortu zen lehen modelo berria Dragoons izeneko seriea izan zen: Baby Dragoon eta Pocket (1849) errebolber-modelo txikiak, eta baita arrakasta handia izan zuen Navy modeloa ere (1851). Handik urte ba- tzuetera, AEBetan Gerra Zibila hasi zen. Gertaera hark Samuel Colt erabat aberastu zuen. Bere enpresan gau eta egun hasi ziren lanean soldadu denek gu- txienez arma bat izan zezaten esku artean.

1862an, 47 urte besterik ez zituela, osasun-arazozen ondorioz hil egin zen Colt. Samuelek pasio handiz sortu zuen tresna pozoitsu hura saltzen jarraitu zuen Elizabeth Jarvis haren alargunak.

“westernetan, errebolber-modelo batzuk beti heroiek erabiltzen zituzten eta beste batzuk, berriz, gaiztoek”

Bestalde, 1911n, 45ACP kalibreko pis- toleri esker, Colt errebolber-egileen fa- brika AEBetako enpresarik ospetsuena bihurtu zen. Izan ere, urte hartan AEBetako gobernuak pistola-modelo hori arauzko arma gisa onartu zuen. Horrez gain, Colt enpresak, hirurogei- garren hamarkadan, Vietnamgo gerra- terako bereziki, AR-15/M-16 fusil ospetsua sortu zuen.



Errebolberrera cowboyen ezinbesteko lan-tresna zen.



ARTXIBOKOA

Soldadu estatubatuarrek gerra zibilean erabilitako Navy errebolberrera.

Onak eta gaiztoak bereizteko balio duen errebolberrera

SAA (Single Action Army) errebolber- -modeloa sortu eta lehenengo 67 ur- teetan, hainbatek erabili zuten: saltzai- leek, esploratzaileek, soldaduek, poliziek, alprojek, baseritarrek... Baina 1970eko hamarkadaren hasieran, zinemako aktoreen eskuetan ere ikus zitekeen.



ARTXIBOKOA

Westernetan maiz ikusten dira SAA errebolberrak, Coltek asmatutakoak.

John Wayne, Gene Autry eta Roy Rogers cowboyak zer lirateke eskuan errebolberrik gabe? Charlie Chaplin bere bastoirik gabe azaltzea bezala litzateke. John Wayne, adibidez, film gehienetan Peacemaker (bakegilea) izena duen errebolber-modeloa erabi- tzen zuen. Westernetan, errebolber- -modelo batzuk beti heroi eta prota- gonista onak erabiltzen zituzten (Pea- cemaker eta SAA errebolber-mode- loak) eta beste batzuk, berriz, gaiztoek. Harrigarria dirudien arren, hiltzeko tresnek ere zintzoak eta maltzurrik bereizteko balio dute. Baina, horren- beste gizakiren eskuetan dabilzan errebolberrak onuragarri ote dira zer- baiterako? Tamalez, Elhuyarrek ez du aukerarik izan Samuel Colti galdera hori egiteko. □